

# Hilezkortasunaren bila



**B**azegoen behin, Madriden, mutil bat alaia, jatorra eta gauza berriak egiteko beti prest zegoena. Egun batean, ordea, gaixotasun bat hartu zuen, oso arraroa, medikuek ere ez zekitena zer zen. Baina gauza bat argi zeukaten denok: gutxika, gutxika, hiltzen joango zela.

Baina lkerrek, horrela deitzen baitzen, ez zuen hil nahi, gauza berriak probatu nahi zituen eta ikusita medikuek ezin zutela ezer egin, magoak bisitatu zituen, liburu zaharrak irakurri eta hainbat kondaira entzun. Orduan enteratu zen, Turkiako herri txiki batean iturri magiko bat zegoela eta hainbat gaixotasun sendatu ahal zituela. Horregatik, bitan pentsatu gabe, Turkiara zihoan lehenengo hegazkina hartu zuen, bere gaixotasuna sendatuko zelakoan. Hara joan, iturri hori topatu eta ahal zuen ur guztia edan zuen. Bueltan medikuarengana joan zen sendatu zitzaion esperantzarekin, baina ez zen horrela izan. Egun pare bat egon zen etxean etsita, baina hil egingo zela gogoratzerakoan berriro hasi zen bilatzen. Egun gutxitara kondaira bat entzun zuen Indiako elefante batena. Bere listuak gaixotasun gehienak sendatzen zituen eta orduan lker berriro animatuta, Indiarra joan zen. Elefantea topatu zuen, baina elefanteak esan zion bere urrezko erlojua eman behar ziola trukean. Azkenean erlojua eman eta listua lortu zuen. Edan zuen eta askoz hobeto sentitu zen, baina ez zen izan sendatu zelako. Orain bai etsituta etxera joan zen eta aste oso bat egon zen bertatik irten gabe. Egun batean, ordea, etxeko txirrina jo zuten eta gizon misterioitsu bat agertu zen. Gizonak horrela esan zion:

- Lasai, ez beldurdu, zu laguntzera nator eta hilezkortasuna topatzen lagunduko dizut.
- Benetan?